**AKTA** / ACTA
**GIZARTE KONTSEILUA/** CONSEJO SOCIAL

| | |
|---|---|
| **Deialdia egin duena**<br>Convoca | **Daniel Zulaika**<br>Presidentea / Presidente |
| **Batzar mota**<br>**Sesión** | **Ezohikoa /** Extraordinaria |
| **Data, tokia eta ordua**<br>Fecha, lugar y hora | **2020ko ekainak 17** / 17 de junio de 2020<br>**Kursaal (1+2 Aretoa)/** Kursaal (Sala 1+2)<br>**16:30 (1. deialdia)** /16:30 h (1ª convocatoria)<br>**17:00 (2. deialdia**) /17:00 h (2ª convocatoria) |
| **Amaiera ordua**<br>Hora de finalización | **19:10an /** A las 19:10 horas |

**GAI-ZERRENDA:**
ORDEN DEL DÍA

| | |
|---|---|
| **MONOGRAFIKOA**<br>***"Hiriaren erantzuna COVID-19ren aurrean"*** | **MONOGRÁFICO**<br>***"La respuesta de la ciudad ante el COVID-19"*** |

| Gai zerrenda | Orden del día |
|---|---|
| **1.- 17:00-17:05** | |
| Ongietorria eta lehendakariaren agurra<br>**Daniel Zulaika** | Bienvenida y saludo del Presidente<br>**Daniel Zulaika** |
| **2.- 17:05-17:20** | |
| **Eneko Goia**<br>**Alkatea \| Alcalde** | |
| **3.- 17:20-17:50** | |
| **1. ATALA**<br>**Ekonomia eta Enpresa** | **BLOQUE 1**<br>**Economía y Empresa** |

**Hizlariak | Participantes:** *(3 minutu parte-hartzaile bakoitzeko)*

- **Isabel Agirrezabala** | Turismo Sozietatearen Aholku Kontseilua | Donostia Turismo
- **Iñigo García** | Merkataritzako Aholku Kontseilua | San Sebastián Shops
- **Iñaki Martínez** | Gipuzkoako Merkatarien Federazioa
- **Paul Liceaga** | ADEGI
- **Amaia Bernarás** | Gipuzkoako Zientzia Eta Teknologia Parkea
- **Kino Martinez** | Gipuzkoako Ostalaritza Elkartea

---

**10’ Eztabaida | Debate**

**4.- 17:50-18:15**

| 2 ATALA Kultura, Kirola eta Mugikortasuna | BLOQUE 2 Cultura, Deporte y Movilidad |
|---|---|

**Hizlariak | Participantes:** *(3 minutu parte-hartzaile bakoitzeko)*

- **Oihana Zarra |** Tabakalera
- **Andoni Iraola |** Real Sociedad
- **Fernando Diez |** Herritar Merezimenduaren Domina | BERA BERA R.T. Club Deportivo
- **Igor Gonzalez |** Donostiako Tranbia Konpainia | DBUS

---

**10’ Eztabaida | Debate**

**5.- 18:15-18:45**

| 3 ATALA Sozio-Sanitarioa | BLOQUE 3 Socio-Sanitario |
|---|---|

**Hizlariak | Participantes:** *(3 minutu parte-hartzaile bakoitzeko)*

- **Pilar Lekuona |** Herritar Merezimenduaren Domina | COEGI
- **Iciar Perez |** OSAKIDETZA | OSI Donostialdea
- **Eva Salaberria |** Donostiako Udala
- **Elena Lukin |** Gizarte Ekintza Kontseilua – Gururtze Gorria
- **Arrate Echezarreta |** Familia Urgarien Elkarteak | Hirukide
- **Amaia Lasheras |** Berdintasunaren Kontseilua | Arrats Elkartea

---

**10’ Eztabaida | Debate**

| 6.-18:45-19:00 | |
|---|---|
| **Azken Eztabaida** | **Debate Final** |
| **7.- 19:00** | |
| **Saioaren amaiera** | **Cierre de la sesión** |

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

| | | |
|---|---|---|
| **AGUIRREZABALA** | **ISABEL** | TURISMO SOZIETATEAREN AHOLKU BATZORDE KONTSEILUA - CONSEJO CONSULTIVO DE LA SOCIEDAD DE TURISMO (Donostia Turismo) |
| **AIZPURUA** | **ANDER** | KUTXA (GIZARTE EKINTZA - OBRA SOCIAL) |
| **ANGUIOZAR** | **AMALUR** | GIPUZKOAKO BAZKUNDEA -CÁMARA DE GIPUZKOA |
| **ARANETA** | **AITZOLE** | UDAL TALDEA – GRUPO MUNICIPAL ELKARREKIN DONOSTIA |
| **ARRIETA** | **MADDI** | LAB |
| **ARRILLAGA** | **AINHOA** | MATIA FUNDAZIOA-FUNDACIÓN MATIA |
| **BARBA VERA** | **SANTIAGO** | HIRITARRA /CIUDADANO |
| **BARCENA** | **FÉLIX** | ZAHARREN TXOKOAK- HOGARES DE JUBILADOS (GOIKO GALTZARA ELKARTEA/ASOCIACION) |
| **BARROSO** | **RAQUEL** | MINUSBALIOTASUN FISIKOAK DITUZTEN PERTSONAK KOORDINAKUNDEKO ORDEZKARI BAT - REPRESENTANTE COORDINADORA DE PERSONAS CON DISCAPACIDADES FÍSICAS |
| **BERNARAS** | **AMAIA** | GIPUZKOAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA PARKEA - PARQUE CIENTÍFICO Y TECNOLÓGICO DE GIPUZKOA |
| **BERZOSA** | **JUAN CARLOS** | AUZOTAR ELKARTEA//AAVV LANTXABE (AIETE) |
| **CEA** | **GERMÁN** | KIROL ELKARTE KONTSEILUA - CONSEJO CLUBES DEPORTIVOS (San Sebastián Gipuzkoa Basket) |
| **DIEZ MINTEGUI** | **FERNANDO** | HERRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINA MEDALLA MÉRITO CIUDADANO (BERA BERA R.T. Club Deportivo) |
| **DÍEZ MUIÑO** | **RICARDO** | DONOSTIA INTERNATIONAL PHYSICS CENTRE |
| **ECHEZARRETA** | **ARRATE** | FAMILIA URGARIEN ELKARTEAK - ASOCIACIÓN FAMILIAS NUMEROSAS (LILURALDI) |
| **FERNANDEZ** | **MIREN ARANZAZU** | AUZOTAR ELKARTEA//AAVV AVERIL (LOIOLAKO ERRIBERAK) |
| **GARCÍA** | **CARLOS** | MONDRAGON UNIBERTSITATEA |
| **GARCÍA** | **IÑIGO** | MERKATARITZA KONTSEILUA - CONSEJO COMERCIO (San Sebastián Shops) |
| **GARMENDIA** | **MARISOL** | UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL PSE |
| **GOIA** | **ENEKO** | DONOSTIAKO ALKATEA-ALCALDE SAN SEBASTIÁN |

| | | |
|---|---|---|
| **GONZALEZ** | **IGOR** | DBUS –DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA/ COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN |
| **IDOETA** | **Mª JESUS** | PARTAIDETZAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA CONCEJALA DELEGADA DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA |
| **INSAUSTI** | **AIMAR** | EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO |
| **IRAOLA** | **ANDONI** | REAL SOCIEDAD |
| **IRIGARAY** | **ESTHER** | GIPUZKOAKO FUNDAZIO OZEANOGRAFIKOA FUNDACIÓN OCEANOGRÁFICA DE GIPUZKOA |
| **JOHN** | **BELKIS** | ETORKINEN KOLEKTIBOA - COLECTIVO DE INMIGRANTES (ASODEUS ) |
| **KORTA** | **KEPA** | DONOSTIAKO ESTRATEGIA BULEGOA- OFICINA DE ESTRATEGIA DE SAN SEBASTIÁN |
| **LARREA** | **JUAN LUIS** | KIROL FEDERAZIOAK-FEDERACIONES DEPORTIVAS-(FUTBOL FEDERAZIOA/FEDERACIÓN DE FÚTBOL) |
| **LASHERAS** | **AMAIA** | BERDINTASUNAREN KONTSEILUA - CONSEJO IGUALDAD (Arrats Elkartea) |
| **LEKUONA** | **PILAR** | **LEHENDAKARIORDEA - VICEPRESIDENCIA** ELKARGO PROFESIONALEK - COLEGIO PROFESIONALES (ERIZAINTZAKO ELKARGOA/COLEGIO DE ENFERMERIA) |
| **LICEAGA** | **PAUL** | ADEGI |
| **LUQUIN** | **ELENA** | GIZARTE EKINTZA KONTSEILUA - CONSEJO ACCIÓN SOCIAL (GURUTZE GORRIA) |
| **MARQUET** | **IÑIGO** | MONDRAGON KORPORAZIOA - MONDRAGÓN CORPORACIÓN |
| **MARTINEZ** | **KINO** | **GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA - ASOCIACIÓN DE EMPRESARIOS DE HOSTELERÍA DE GIPUZKOA** |
| **MARTINEZ ETXABEGUREN** | **LUIS ANTONIO** | HIRITARRA /CIUDADANO |
| **MUÑOZ-BAROJA** | **JUAN** | UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL PP |
| **ORMAZABAL** | **MARKEL** | UDAL TALDEA - GRUPO MUNICIPAL EH BILDU |
| **PEREZ IRAZUSTA** | **ITZIAR** | OSAKIDETZA (Donostialdea ESI / OSI Donostialdea) |
| **RODRIGUEZ** | **JOSÉ ANTONIO** | DEUSTOKO UNIBETSITATEA-UNIVERSIDAD DE DEUSTO |
| **TELLEZ** | **OSCAR** | CADENA SER |
| **TRIGOS** | **ANDER** | EUSKARAREN KONTSEILUA - CONSEJO EUSKERA (BAGERA ELKARTEA) |
| **UGALDE** | **ROSA** | **ELKARGO PROFESIONALEK \| COLEGIO PROFESIONALES COLEGIO OFICIAL DE TRABAJO SOCIAL DE GIPUZKOA \|GIPUZKOAKO GIZARTE LANGINTZA ELKARGO OFIZIALA** |
| **VILES** | **JUAN RAMÓN** | UDAL TALDEA – GRUPO MUNICIPAL PNV-EAJ |
| **ZARRA** | **OIHANA** | TABAKALERA |
| **ZULAIKA** | **DANIEL** | **LEHENDAKARIA - PRESIDENTE** HERRITAR MEREZIMENDUAREN DOMINA \| MEDALLA MÉRITO CIUDADANO |

**ETORRI DIRENAK / ASISTENTES: (BOTORAKO ESKUBIDERIK GABE / SIN DERECHO A VOTO)**

| | | |
|---|---|---|
| **GOIKOETXEA** | **IKER** | KURSAAL |

**LEGE ZUZENDARIA /** DIRECCION JURIDICA:

Juan carlos Etxezarreta

**HERRI PARTAIDETZA /** PARTICIPACIÓN CIUDADANA

Amaia Agirreolea
Eva Salaberria

**GIZARTE KONTSEILUAREN IDAZKARITZA TEKNIKOA /**
SECRETARIA TECNICA DEL CONSEJO SOCIAL:

Judith Moreno
Arantza Vázquez
Sonia Galache
Naiara Egimendia

**BERTARATZEA DESENKUSATU DUTENAK / EXCUSAN ASISTENCIA:**
**ETORRI EZ DIRENAK / NO ASISTEN:**

| | | |
|---|---|---|
| **ANTON REMIREZ** | **RAUL** | NAFARROAKO UNIBERTSITATEA - UNIVERSIDAD DE NAVARRA - TECNUN |
| **APAOLAZA** | **XABIER** | OROIMEN HISTORIKOAREN KONTSEILUA – CONSEJO DE LA MEMORIA HISTÓRICA (Genozidioaren biktimen elkartea) |
| **ARANBURU** | **HARKAITZ** | AUZOTAR ELKARTEA//AAVV AMARA BAI(AMARA) |
| **ARTOLA** | **GEMA** | GURASO BAKARREKO FAMILIEN ELKARTEAK - ASOCIACIONES DE FAMILIAS MONOPARENTALES (ASFAMOGI) |
| **ARZALLUS** | **MARIA SOLEDAD** | HIRITARRA /CIUDADANA |
| **CABALEIRO** | **BEGOÑA** | INGURUMEN KONTSEILUA - CONSEJO MEDIO AMBIENTE (Emaus Fundazioa/Fundación Emaus) |
| **CIGANDA** | **PEDRO** | ZAHARREN TXOKOAK - HOGARES DE JUBILADOS (ERDIALDE ELKARTEA/ASOCIACION) |
| **DIEZ** | **JOSÉ Mª** | UGT |
| **EGUREN** | **IÑIGO** | GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZAKO KONTSEILUA - CONSEJO COOPERACIÓN Y EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO (Calcuta Ondoan ONGD) |
| **ERAÑA** | **JESÚS Mª** | BETERRI-KOSTAKO INDUSTRIALDEA, S.A (Zuatzu) |
| **ETXANOBE** | **ELIXABETE** | EUSKO JAURLARITZA - GOBIERNO VASCO |
| **FORNIES** | **HAIETT** | GAZTE KONTSEILUA - CONSEJO JÓVENES |
| **GARCÍA** | **JOSE Mª** | CCOO |
| **GARCIA CERRATO** | **LETICIA ROSIBEL** | HIRITARRA /CIUDADANA |

| | | |
|---|---|---|
| **GARCÍA-VELILLA** | **RAFAEL** | UDAL PLANEAMENDUKO KONTSEILUA - CONSEJO PLANEAMIENTO MUNICIPAL (Ondarearen Defentsa Elkartea/Asociación Defensa Patrimonio) |
| **GOMEZ SAN JOSE** | **MARIA TERESA** | HIRRITARRA /CIUDADANA |
| **LEZA** | **IMANOL** | EUSKO TREN |
| **MARTINEZ** | **IÑAKI** | GIPUZKOAKO MERKATARIEN FEDERAZIOA FEDERACIÓN MERCANTIL COMERCIANTES DE GIPUZKOA |
| **MARTINEZ DE ARTOLA** | **PEDRO** | MUGIKORTASUN KONTSEILUA - CONSEJO MOVILIDAD (RACC) |
| **MUJIKA** | **JOSÉ GABRIEL** | DIARIO VASCO |
| **PILAPANTA** | **GABRIEL ESTEBAN** | HIRRITARRA /CIUDADANO |
| **RIÑÓN DIEZ** | **JOSE Mª** | RENFE ALDIRIKOAK - CERCANÍAS |
| **SALABERRIA** | **AITOR** | KULTUR KONTSEILUA - CONSEJO CULTURA (Taller Kultur Lantegia) |
| **SALVADOR** | **CESAR** | PASAIAKO PORTUKO AGINTARITZA/AUTORIDAD PORTUARIA PASAJES |
| **SÁNCHEZ** | **JOSE MANUEL** | AENA DONOSTIAKO AIREPORTUA - AEROPUERTO DE SAN SEBASTIÁN |
| **SÁNCHEZ** | **MIKEL** | AUZOTAR ELKARTEA//AAVV Morlanstarrak Auzo Elkartea (MORLANS) |
| **URBIETA** | **USOA** | IKASLEEN GURASO ELKARTEAK - ASOCIACIÓN DE PADRES Y MADRES DE ALUMUNNOS Y ALUMNAS - AMPAS (BAIKARA) |
| **ZURUTUZA** | **SEBASTIAN** | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA |
| | | AUZOTAR ELKARTEA//AAVV PARTE ZAHARREAN BIZI(PARTE ZAHARRA) |
| | | ELA SINDIKATUA |
| | | KULTUR ERAKUNDEA-ENTIDADES CULTURALES |

| | |
|---|---|
| **PARTAIDETZARI BURUZKO DATUAK**<br>DATOS DE PARTICIPACIÓN | **POLITIKOAK \| POLÍTICAS-POLITICOS: 7**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = 3<br>**Gizonezkoak /** Hombres = 4 |
| | **HERRITARRAK \| CIUADANÍA: 41**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = 19<br>**Gizonezkoak /** Hombres = 22 |
| | **TEKNIKARIAK \| TÉCNICAS Y TÉCNICOS: 7**<br><br>**Emakumezkoak /** Mujeres = 6<br>**Gizonezkoak /** Hombres = 1 |

**Saioaren bilakaera /** Desarrollo de la sesión:

| | |
|---|---|
| **1. Lehendakariaren ongietorria eta agurra**<br><br>17:07an, **Daniel Zulaikak, Gizarte Kontseiluko** lehendakariak, ezohiko Gizarte Kontseilura bertaratu diren pertsonak agurtu ditu, eta hasiera eman dio saioari.<br><br>Jarraian, zera adierazi du: atzera begiratuz, martxoaren 5ean izan zen azken bilera gogoratuz, **inork ez zuen imajinatu ere egingo zer agertoki izango genuen aurrean, alegia, "tsunami izugarri bat, proiektuak eta ilusioak pikutara bidali dituena, geure ahuleziaz jabetu arazi gaituena eta zalantza ugari sortu dizkiguna".** Hiriaren beste une historiko bat ere aipatu du: "hiriaren zati bat suntsitu zutenean, eta su hartu zuenean", auzotar talde batek testigua hartu zuen, eta hiria berreraikitzeari ekin zion.<br><br>Gizarte Kontseiluko lehendakariak adierazi du **honelako egoeretan hartzen duela balioa** eta bere benetako garrantzia **Gizarte Kontseiluak**. Izan ere, esan duenez, norberaren ikuspegiez eta esperientzia partikularrez gain, egoera hauetan **"360º-ko ikuspegi globala eduki behar da"**, eta adierazi du bilera hau dela horren adibide garbia. Izan ere, Gizarte Kontseilu honetan (jada adierazi duelarik dinamikoagoa eta eragileagoa izateko helburua duela), egoera hauen ondorioz zenbait ekimen egingo dira, adibidez, ezohiko saio hau.<br><br>Adierazi du saioak hiru gai multzo izango dituela, modu laburrean hitz egingo duten hizlariekin, eta egongo dela eztabaidarako tartea ere; gogorarazi du Gizarte Kontseiluaren saio historiko hau grabatu egingo dela, irudiak hartuko direla eta Interneten zabalduko dela.<br><br>Azkenik, eskatu du hitzaldiak laburrak izan daitezela, eta saioaren funtzionamendu operatiboa azaldu du. Ondoren, Eneko Goia hiriko alkateari eman dio hitza. | **1. Bienvenida y saludo del presidente**<br><br>A las 17:07 **Daniel Zulaika**, presidente del **Consejo Social**, saluda a las personas presentes al Consejo Social extraordinario y declara abierta la sesión.<br><br>Continúa señalando que, al mirar hacia atrás, en la última reunión del 5 de marzo, **nadie podría imaginar el tremendo escenario "un tsunami que se ha llevado por delante proyectos e ilusiones y nos ha hecho conscientes de nuestra propia vulnerabilidad y nos ha generado muchas incertidumbres"**. Hace alusiones a otro momento histórico de la ciudad cuando "tras la destrucción e incendio de parte de la ciudad" un grupo de vecinos tomo el testigo para reconstruir la ciudad.<br><br>El presidente del Consejo Social apunta a que **es en circunstancias como estas cuando el Consejo Social se pone en valor**, y adquiere su verdadera dimensión, puesto que, además de las propias visiones y experiencias particulares, en estas ocasiones **se necesita tener "una visión global de 360º"** y manifiesta que esta reunión es un claro ejemplo de esto. Ya que en este Consejo Social que ya ha manifestado su intención de ser más dinámico y operativo, estas circunstancias llevan a tomar iniciativas como esta sesión extraordinaria.<br><br>Explica que la sesión discurrirá en tres bloques, con ponentes que intervendrán brevemente y habrá tiempo para debate; recuerda esta sesión histórica del Consejo Social será grabada y se tomarán imágenes y será difundida en internet.<br><br>Finalmente, tras pedir brevedad en las exposiciones y explicar el funcionamiento operativo de la sesión, emplaza a Eneko Goia, alcalde de la ciudad, a tomar la palabra. |

| 2. Eneko Goia \| Donostiako alkatea | 2. Eneko Goia \| Alcalde de Donostia / San Sebastián |
|---|---|
| Ohiko agurraren ondoren, **Eneko Goiaren** hitzaldia hasi da 17:11n. Aurretik adierazitakoarekin bat etorri da, eta **nabarmendu du Gizarte Kontseiluak duen eginkizuna egungoa bezalako testuinguru batean**. | Tras el saludo de rigor, **Eneko Goia** comienza su intervención a las 17:11 coincidiendo con lo expuesto, **destacando el papel del Consejo Social en un contexto como el actual**. |
| Munduko herri gehienei eragiten dien egungo egoera berri eta globalari buruzko zuzeneko aipamenak egin ditu, ikuspegi sozial eta ekonomikoa aintzat harturik. Berak esan duenez, "Donostia ez da salbuespen bat", eta hiria ahalik eta hobekien ari da egoerari aurre egiten. Hala ere, eta **mezu ezkorrik helarazi nahi ez badu ere, adierazi du ondorioek eragin handia dutela eta izango dutela**. Horrek guztiak agerian jartzen du **garrantzitsua dela "ikuspegiak batu eta estrategiak partekatzea", ikusteko "zein den gidoi berria, zer aldatu diguten eta zein den hemendik aurrera idatzi beharko duguna", egoera behar bezala diagnostikatzeko (indarguneak eta mehatxuak). Adierazi du jarduera ildo batzuk zehaztu behar direla, hiri gisa egoera berriari aurre egiteko.** | Realiza alusiones directas a la situación inédita y global, que afecta a la mayor parte del mundo, en cuanto a las perspectivas sociales y económicas. Añade que "Donostia / San Sebastián no es una excepción", y que la ciudad se está enfrentando a esta situación lo mejor posible, si bien **las consecuencias, sin ánimo de lanzar un mensaje negativo señala, tienen y tendrán un gran impacto**; todo ello pone en relieve la **importancia de "aunar visiones y compartir estrategias, para ver "cuál es el nuevo guión, que nos han cambiado y cuál es el que tendremos que escribir a partir de ahora"**; para **realizar un diagnóstico certero de la situación (fortalezas y amenazas)**, manifestando la **necesidad de definir unas líneas de acción para afrontar como ciudad la nueva situación.** |
| Alkateak **Gizarte Kontseiluaren garrantzia** nabarmendu du**, hiriko erakundeen eta gizarte zibilaren partaidetzarako eta topaketarako organo gorena baita; "eztabaida hau foro honetan garatu behar da, eta bertatik ideia eta proposamen batzuk atera behar dira, epe motzean eta ertainean aurrera eramateko".** | El alcalde destaca la **importancia del Consejo Soci**al, **como máximo órgano de participación y encuentro de las instituciones y la sociedad civil de la ciudad, como "el foro en el que se debe producir este debate y del que se deben extraer una serie de ideas y propuestas para el corto y medio plazo".** |
| Hemen egin behar dituzte beren ekarpenak ordezkatuta dauden sektoreek, modu horretan, proposamenak partekatuz, estrategia bat sor dadin. | En el que los sectores representados deben realizar sus aportaciones, de modo que del intercambio de propuestas surja una estrategia. |
| Amaitzeko, adierazi du **"entzute moduan" jarriko dela, "egin behar diren ekarpenak aintzat hartzeko"**, "guztion artean egoera honi aurre egin ahal izan diezaiogun". | Finaliza apuntando que **se pone en "modo escucha, para atender a las aportaciones que se van a realizar**", con la intención de que "entre todos y todas podamos hace frente a esta situación" |
| Jarraian, Daniel Zulaikak ekonomia eta enpresari buruzko gai multzoa aurkeztu du, eta Isabel Agirrezabalari eman dio hitza. | A continuación, Daniel Zulaika presenta el bloque sobre economía y empresa, emplazando a Isabel Agirrezabala a comenzar su disertación. |

| 3. 1. gai multzoa: Ekonomia eta enpresa | 3. Bloque 1: Economía y empresa |
|---|---|
| 17:18an, **Isabel Agirrezabalak, Donostia Turismoa SAko** zuzendariak, bere hitzaldia hasi du. Azpimarratu du pandemia honek eragin globala izan duela, eta orokorrean alderdi guztiei eragin diela. Izan ere, **egoera honek ez dio eragiten turismoari bere arlo ekonomikoan soilik; aitzitik, gizarte gisa dugun flotazio guneari eragiten dio.** | A las 17:18 **Isabel Agirrezabala**, directora de **Donostia Turismo,** comienza su exposición incidiendo en el impacto a nivel global de esta pandemia y de manera general en todos los aspectos, puesto que **no es una situación que afecte únicamente al turismo como actividad a escala económica, sino que impacta en el núcleo de flotación como sociedad.** |
| **Azken urteotan izan ditugun marketin estrategien garapena** laburtu du, **eta adierazi du estrategia horiek egoerari egokitu behar zaizkiola,** eta, une honetan, elementu berri batzuei begira jarrai behar direla. **Hori horrela, gaztelaniaz lau "S" deitzen zaien horiek aipatu ditu, eta euskaraz hauek direnak: segurtasuna, osasuna, jasangarritasuna eta solidaritatea. Helburua izango da turismo bidezko eta orekatua garatzeko lan egitea, 2030 Agendarekin eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorrena.** | Hace un recorrido por la **evolución de las estrategias de marketing en los últimos años, señalando que dichas estrategias deben adaptarse a la situación**, virando hacia nuevos elementos, citando **las cuatro "S", seguridad, salud, sostenibilidad, y solidaridad, con el objetivo de ahondar en el desarrollo un turismo equitativo, equilibrado, alineado con la Agenda 2030 y los ODS de las Naciones Unidas.** |
| Azpimarratu du turismo sektoreko enpresak **kezkatuta** daudela, egungo egoeran bizi duten krisia dela-eta, eta nabarmendu du **turismoa, berez, sektore anitza dela, zeharkako sektore bat; izan ere, jarduera arlo askoren inguruan mugitzen da: merkataritza, ostalaritza, garraioa, museoak, aisialdiko zentroak, turismo zerbitzuak…** Enpresa horietako asko **enpresa txikiak** dira, hiriko enplegua eta turismoa aktibatzen dutenak. **Hiriko enpleguaren % 24,8a hartzen du, eta haren BPGren % 13,9a.** Adierazi du **enpresek laguntzak behar dituztela, eta erakundeen babesa, eta aurreikusten du susperraldia motela izango dela.** | Hace hincapié en la **preocupación** que están padeciendo las empresas del sector turístico debido a la crisis en las actuales circunstancias y recalca que **el turismo es en realidad un multisector**, **un sector transversal, que pivota sobre muchas áreas de actividad (comercio, hostelería, transporte, museos, centros de ocio, servicios turísticos,…);** empresas, una gran parte de las cuales, son **pequeñas empresas**, activadores del empleo y del turismo de la ciudad. **Englobando el 24,8% del empleo en la ciudad y el 13,9% de su PIB**. Manifiesta que **las empresas necesitan ayudas y el apoyo de las instituciones, augurando una lenta recuperación.** |
| Jarraian, nabarmendu du **aukera bat dela hiria helmuga turistiko seguru gisa posizionatzea. Azpimarratu du "prest egon behar dugula segurtasun hori letra larriz adierazteko", eta garrantzitsua dela "gure bizitzetara mugikortasuna itzultzea".** | Se centra a continuación en la **oportunidad de un posicionamiento de la ciudad como destino seguro, insistiendo en "debemos estar preparados para comunicar esa seguridad con mayúsculas" y en la importancia de que "la movilidad vuelva a nuestras vidas".** |
| Amaitzeko, nabarmendu du "inongo helmuga turistikok ezin duela esan COVID-free denik, baina prest gaudela protokoloa aplikatzeko". | Finaliza remarcando que "ningún destino puede autodenominarse COVID-free pero sí estamos preparados para aplicar el protocolo". |

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN | GIZARTE KONTSEILUA CONSEJO SOCIAL

| | |
|---|---|
| **San Sebastián Shops-eko Iñigo Garcíak** hartu du hitza 17:24an, eta itxialdiko garaiak ekarri ditu gogora**. Gogoeta egin du lehenagoko bizitzeko, erosteko eta kontsumitzeko ohituren inguruan, eta baita merkataritzak hartu beharko lukeen bidearen inguruan ere. Hain zuzen ere, merkataritzak 4.000 establezimendu baino gehiago** ditu hirian, **eta horietatik 2.700 inguru merkataritza sektorekoak dira eta 1.700 inguru ostalaritza sektorekoak; era berean, adierazi du 17.000 pertsona baino gehiagok lan egiten dutela sektore horietan, eta hiriko BPGren % 15a ordezkatzen dutela.** | **Iñigo García** de **San Sebastián Shops** toma la palabra a las 17:24 recordando los momentos de confinamiento **reflexionando sobre los hábitos de vida, las prácticas de compra y consumo previas y hacia dónde debería orientarse el comercio**, que comprende en la ciudad a **más de 4.000 establecimientos, de los cuales cerca 2.700 pertenecen al sector comercial y alrededor de 1.700 al sector hostelero, dando empleo a más de 17.000 personas y representando el 15% del PIB de la ciudad.** |
| Gogora ekarri du egungo egoera jarduera honetan izaten ari den eragina, eta aipatu du horrek derrigortzen gaituela bidezkoa eta jasangarria den irtenbide bat ematera tokiko merkataritzari. Era berean, aurreikusten du **garai gogorrak etorriko direla, bai enpleguan, bai milaka familiaren biziraupenean, eta, orokorrean, Donostiako ekonomia osoan, salmenta digitalek eta multinazionalek mehatxaturiko ekonomia baita.** | Recuerda el impacto que las actuales circunstancias están teniendo en esta actividad, que obliga a buscar una salida justa y sostenible para el comercio local, augurando **tiempos duros en el empleo, la subsistencia de miles de familias y el conjunto de la economía donostiarra, amenazada por las ventas digitales y multinacionales.** |
| **Deia egin die erakunde publikoei eta gizarte erakundeei, laguntza eskatuz. Azpimarratu du beharrezkoa dela Donostiako kontsumitzaileak jabetu araztea zer garrantzia duten tokiko kontsumoak, 0 Km-ko erosketek eta kontsumo arduratsuak, eta balioa eman behar zaiola erosteko esperientziari.** | Hace un **llamamiento al apoyo de las instituciones públicas y organizaciones sociales, incidiendo en la necesidad de concienciar a las y los consumidores donostiarras sobre la importancia del consumo local, la compra Km-0, un consumo responsable, poniendo en valor la experiencia de compra.** |
| Amaitzeko, azpimarratu du **gure saltokietan eginiko erosketek lagundu egingo dutela gure ekonomiari, gure merkataritzari eta gure enpleguari eusten, eta "gure kaleei eta auzoei bizitza emango dieten erosketak izango direla".** | Finaliza enfatizando que **las compras en nuestros comercios ayudarán a mantener nuestra economía, nuestro comercio y nuestro empleo, "unas compras que darán vida a nuestras calles y barrios".** |
| 17:27an, **Iñaki Martinezek (Gipuzkoako Merkatarien Federazioa)** hartu du hitza. Adierazi du enpresa sektorearentzat eta **merkataritza sektorearentzat "erabateko shock-a" izan dela COVID-19 bat-batean sartzea**. Jarraitu du esaten **merkataritza sektorearen heren bat lehenengo mailako behar gisa katalogatuta dagoela, eta irekita egon dela, gure inguruko auzoetan eta udaletan zerbitzua emanez, ia batere segurtasun neurririk gabe.** Adierazi du **horri** | A las 17:27 **Iñaki Martínez (Gipuzkoako Merkatarien Federazioa)** toma la palabra señalando que, **para el** sector empresarial, el **sector comercial la irrupción del COVID-19 ha supuesto "un tremendo shock",** continúa explicando que **una tercera parte del sector comercial está catalogado como de primera necesidad y se ha mantenido abierto, dando servicio a los barrios y los municipios de nuestro entorno, sin apenas medidas de seguridad**. Manifiesta que **todo esto ha** |

| | |
|---|---|
| **guztiari esker kontzientzia sortu dela gizartean tokiko merkataritzak duen balioaren inguruan, komunitateari balioa eta zerbitzua emateari dagokionez.** | **contribuido a una concienciación social sobre el valor del comercio local como valor y servicio a la comunidad.** |
| Jarraian, **sektorean** izan diren gertakariak zehaztu ditu, izan ere, faseak iritsi direnean, sektore honetan **aldi berean gauzatzen ari dira ABEEEak eta jarduera.** Hala ere, **baikortasunerako mezua helarazi du, eta adierazi du merkataritza prest dagoela, normalizazioaren, bisitari frantsesen eta turismo nazionalaren zain, berrikuntzaren eta segurtasunaren aldeko apustua eginez.** | Prosigue detallando las incidencias en **el sector**, que con la llegada de las distintas fases **está compaginando ERTES con la actividad.** No obstante, **lanza un mensaje de optimismo apuntando que, a la espera de la normalización, los visitantes franceses y el turismo nacional, el comercio está preparado, apostando por la innovación y la seguridad.** |
| Amaitzeko, bideo bat aurkeztu du, balio horiek azpimarratzen dituena: "Comercio. Ilusión por avanzar. Bizitzeko gogoa. " | Para finalizar presenta un video que presenta estos valores "Comercio. Ilusión por avanzar. Bizitzeko gogoa". |
| Laugarren hizlaria **Paul Liceaga** da, **ADEGI**koa. Bere hitzaldia 17:29an hasi du. Adierazi du ez duela COVID-19ren eraginaren inguruan luzatzeko asmorik, baina azpimarratu du martxoaren 5ean eta maiatzaren 22an **9.371 enpresa zeudela ABEEE prozesuetan sartuta, eta horrek 63.470 pertsonari eragiten ziela.** | El cuarto ponente **Paul Liceaga** de **ADEGI** comienza su exposición a las 17:29, con la intención de no extenderse en el impacto del COVID-19, pero señalando que a fecha de 5 marzo y 22 de mayo **9.371 empresas estaban incursas en procesos de ERTE, afectando a 63.470 personas.** |
| Adierazi du **arazo berriak ditugula aurrean, eta horiei soluzio berriak eman behar dizkiegula. Nabarmendu du osasunaren eta ekonomiaren arteko oreka bilatuz lan egin behar dugula etengabe.** | Comenta que **nos estamos encontrando con problemas nuevos que tenemos que solucionar con soluciones nuevas, apuntando a que tenemos que trabajar en equilibrio constante entre la salud y la economía.** |
| Jarraian, atentzioa jarri du **ostalaritza sektorean**, turismoko azpisektorea denaren barnean. Gogorarazi du ingurune hori erabat eraldatzen ari zen ingurunea zela, **baina establezimendu hauen irekiera aurreikusi gabe zegoen agertoki batean gertatu dela, erabat desberdina den agertokian**. Azpimarratu du **ostalaritzan enplegua oso bizia dela**, eta inbertsioak ere oso handiak direla, baina, era berean, adierazi du **laguntzetatik kanpo ari direla geratzen beren neurriagatik eta/edo tipologiagatik.** | Continúa poniendo el foco en el **sector hotelero**, dentro del subsector del turismo, recordando que era un entorno de absoluta transformación, pero que **la apertura de estos establecimientos se produce en un escenario totalmente diferente al previsto**; pone el punto en lo **intensivo del empleo en la hostelería** y en las importantes inversiones, pero también señala que **se están viendo fuera de las ayudas por su dimensión y/o tipología.** |
| Adierazi du **komenigarria izango litzatekeela sustapenak egitea**, agerian jarriz hiriak duen esperientzia, profesionaltasuna eta egiten jakitea, horren guztiaren ondorioz **prest egongo baita kanpotik datozenak hartzeko**. **Horren inguruko laguntzak eskatu ditu, eta** | Manifiesta que **convendría hacer promociones** insistiendo en la experiencia, en la profesionalidad y en el saber hacer que tiene la ciudad, que como consecuencia de todo ello **va a estar preparada para atender a las personas que vengan de fuera, solicitando ayudas en** |

| | |
|---|---|
| **azpimarratu du sektore honetan eginiko aurrekontu ahaleginak eragina izango duela beste esparru batzuetan ere.**<br><br>Jarraian, **eraikuntzaren** esparrua aipatu du, jarduera hori eten egin baitzen COVID-19k eraginda. Sektore hori da **enplegu eragileetako** bat, eta **inbertsioak eteteko egon daitekeen tentazio** logikoaren aurrean, adierazi du **inbertsioak birplanteatu egin beharko liratekeela**, hau da, zein egin eta zein ez. Adierazi du **sektore honek ordezkatzen duela lurraldeko jardueraren % 6,2a, eta haren zerga gaitasuna, berriz, 7,2koa dela (gutxi gorabehera 362 milioi eurokoa).**<br><br>Era berean, adierazi du komenigarria dela izapideak arintzea, jarduera hau gauzatu ahal dadin. Arintze horien adibide gisa aipatu ditu erantzukizunezko aitorpenak edo isiltasunen balioa, epeak amaitu direnean.<br><br>**Amaia Bernarás** Gipuzkoako Zientzia eta Teknologia Parkeko gerenteak hartu du hitza 17:34an. Hasteko, **balioa eman die Parkeko enpresek pandemia garaian eginiko lanari eta izaniko lankidetzari,** eta animoak emateko mezua helarazi du: **"Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza eragileak izan dira eta bizirik iraun dute, eta modu positiboan ari dira irauten".**<br><br>Aurkezpen baten laguntzarekin, hilabeteotan Euskadiko teknologia parkeen sareko enpresekin eginiko lanari buruzko laburpen bat egin du. Enpresa horiek 157 dira Gipuzkoan, Miramon, Galarreta eta Eibarko parkeetan bilduta. Bi norabidetakoa izan den etengabeko komunikazioa eduki da enpresa gehienekin.<br><br>Martxoaren amaieran, enpresa horietako 137ri buruzko informazioaren arabera (totalaren % 87a Gipuzkoan) kasu positibo gutxi atzeman dira (20 pertsona), eta ez da hildakorik izan. Adierazi du enpresa gehienek telelana modalitatean jarraitu dutela beren jarduerarekin (**%70 telelanean aritu dira, % 25 modu mistoan eta soilik bi egon dira itxita**), eta aipatu du telelana hemen geratzeko etorri dela. | **este sentido, incidiendo en que el esfuerzo presupuestario en este sector redunda en otros ámbitos.**<br><br>Seguidamente se refiere al ámbito de la **construcción**, que vio paralizada su actividad por el COVID-19. Es uno de los sectores **tractores de empleo** y, **ante** la natural **tentación de suprimir las inversiones**, señala que **habría que replantearse las inversiones**, cuáles hay que hacer y cuáles no, explicando que **este sector representa el 6,2% de actividad del territorio, mientras que su capacidad impositiva es del 7,2 (362 millones de € aproximadamente)**.<br><br>Así mismo, apunta la conveniencia de agilizar los trámites, para que esta actividad se pueda realizar, citando como ejemplos de acciones las declaraciones responsables o el valor de los silencios, cuando los plazos hayan trascendido.<br><br>**Amaia Bernarás**, gerente del Parque Científico y Tecnológico de Gipuzkoa toma la palabra a las 17:34 y en primer lugar **pone en valor la labor y colaboración de las empresas del Parque durante la pandemia**, lanzando un mensaje de ánimo: **"la Ciencia, la Tecnología y la Innovación han sido tractores y han sobrevivido, y lo están haciendo de manera positiva".**<br><br>Apoyada en una presentación realiza un breve recorrido por el trabajo realizado durante estos meses con las empresas de la red de parques tecnológicos de Euskadi, que en Gipuzkoa comprende 157 empresas entre los parques de Miramón, Galareta y Eibar. Se ha mantenido una comunicación bidireccional constante con la mayor las empresas.<br><br>A finales de marzo, según información respecto a 137 de estas empresas (el 87% del total en Gipuzkoa), se han detectado pocos casos positivos (20 personas), sin fallecimientos. Señala que la mayor parte de las empresas han continuado su actividad en modalidad de teletrabajo (**70% en teletrabajo, un 25% en modalidad mixta y tan sólo dos cerradas**), apunta a que el teletrabajo ha llegado para quedarse. |

| | |
|---|---|
| **Lanean aritu diren enpresen artean, % 44 biozientzien eta osasunaren arloan aritu dira; % 26 telekomunikazioen eta informazio eta komunikazio teknologien arloan; eta % 27 enpresei laguntza emateko jarduereten.** | **De las empresas trabajando el 44% en áreas relacionadas con biociencias y sanidad, 26% en Telecomunicaciones y Tecnologías de la Información y la Comunicación y un 27% en actividades de apoyo a empresas.** |
| ADEGI eta ELKARGI aipatu ditu, egin duten lanagatik. Era berean, Parkean egindako jardueren laburpen bat egin du, eta jarduera horien artean hauek aipatu ditu: segurtasun protokoloen aplikazioa eta lanean ari diren pertsonen jarraipena eta kontrola, baita babes eta prebentzio protokoloen inguruko koordinazio eta informazio eginkizunak ere. Bestalde, aipatu ditu lan egiteko moduan izaniko aldaketak eta horiek berekin dituzten aukerak, adibidez, webinar gehiago egitea… | Cita a ADEGI y ELKARGI por su labor y resume entre las actividades realizadas desde el Parque la aplicación de protocolos de seguridad y el seguimiento y control de las personas trabajando, así como tareas de coordinación e información de protocolos de protección y prevención. Por otra parte, hace referencia a cambios en la manera de trabajar y las alternativas que presentan, como la mayor realización de webinars,… |
| Amaitzeko, **"COVID proiektuetan" lan egiten duten enpresen** irudiaren proiekzioa erakutsi du. **Horiek dira Biodonostia, DNAdata, Ikerlan, Tecnalia, CEIT, Graphenea, Ikusi, Vicomtech, CICbiomaGUNE, Ibermátivca, Tekniker, Viralgen.** | Finaliza con una imagen proyectada del **conjunto de empresas que trabajan en "proyectos COVID" (Biodonostia, DNAdata, Ikerkan, Tecnalia, CEIT, Graphenea, Ikusi, Vicomtech, CICbiomaGUNE, Ibermátivca, Tekniker, Viralgen.** |
| Gai multzo honekin amaitzeko, **Kino Martínezek** hitz egin du. Honek 17:40an hartu du hitza, eta, hasieran, animoak emateko eta elkartasuna adierazteko mezua helarazi die, **Gipuzkoako Ostalaritza Elkartetik**, hildakoren bat izan duten familiei. | Concluye este bloque con la presentación de **Kino Martínez**, quien toma a las 17:40 comenzando con un mensaje de ánimo y solidaridad desde la **Asociación de Hostelería de Gipuzkoa** a las familias que han perdido a alguien. |
| Aurrera jarraitu du, aurkezpen baten bidez, eta hiriko ostalaritza sektorearen egoera laburtzen duten datu batzuk aurkeztu ditu. Sektoreak **1.440 establezimendu** ditu (242 ostatu arlokoak eta 1.198 jatetxe arlokoak), eta **8.326 pertsonak egiten dute lan bertan** (2019ko abenduaren 31ko datuak). **Osasun krisiaren aurretik, sektore honek 700 milioi euroko fakturazioa izango zuela aurreikusten zen** ekitaldi honetarako. | Continúa apoyándose en una presentación mostrando una serie de datos que resumen la realidad del sector hostelero en la ciudad. Con **1.440 establecimientos** (242 alojamientos y 1.198 restauración) **da empleo a 8.326 personas** (cifras a 31 de diciembre de 2019) y **preveía antes de la crisis sanitaria una facturación de 700 millones de euros** para el presente ejercicio. |
| Hala ere, COVID-19ren eraginei buruzko kalkuluek **datu kezkagarriak erakusten dizkigute; fakturazioa -% 40 murriztera irits daiteke, eta, era berean, enplegua ere murriztuko litzateke, -% 25 murriztera iritsi ere.** | Sin embargo, las estimaciones sobre el efecto del COVID-19 aportan **preocupantes datos con una posible disminución de la facturación de hasta un -40%, viéndose también reducido el empleo hasta en un -25%.** |
| **Establezimendu kopurua ere murriztu egingo da, kalkulu horien arabera, -100 eta** | **El número de establecimientos también se verá reducido según estas estimaciones** |

| | |
|---|---|
| **-120 bitartean** (horrek esan nahi du establezimendu guztien -% 8tik -% 10era murriztuko direla). Horren arabera, **2.000 lanpostu inguru galduko lirateke** (-% 24), **eta 300 milioi euro inguru fakturazioan** (2021eko udaberrira arteko aurreikuspenen arabera). Aurreikuspen horiek adierazten dutenez, **jarduera ez da suspertuko lau urte inguru igaro arte.** | **entre -100 y -120 establecimientos** (lo que supone una reducción del -8 a -10% del total de establecimientos), lo que supondría **una pérdida de unos 2.000 empleos** (-24%) **y de unos 300 millones de euros en la facturación** (según previsiones hasta primavera de 2021). Estas previsiones apuntan a que **no se recuperará la actividad hasta dentro de unos cuatro años**. |
| Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko idazkari nagusiak bere **kezka** adierazi du horregatik guztiagatik, eta **ostalaritza sektoreak bizi duen egoeragatik. Egoera hori ekarri dute, besteak beste, kontsumo ohituretan izan diren aldaketek (gero eta gehiago areagotu dira *delivery* eta *take-away* deituak, pandemiak "sozializazioa" murriztu egin duelako) eta turismo fluxuen beherakadak.** Era berean, gogorarazi du **areto huts mordoa izateko arriskua dagoela** aurreikuspen negatibo horiek betetzen badira. Areto huts horiek **finantza ahalmena duten kanpoko taldeen interesekoak izan daitezke, eta horiek aldatu egin dezakete Donostiaren hiri egitura eta gastronomia egitura.** | El secretario general de la Asociación de Hostelería de Gipuzkoa muestra su **preocupación** por todo esto y **por la situación en la que se encuentra el sector hostelero debido, entre otras cosas, a los cambios de consumo (el creciente aumento del *delivery* y el *take-away*, la pandemia ha reducido la "socialización") y a la reducción de flujos turísticos.** Recuerda también el **riesgo de encontrarnos con un gran número de los locales vacíos,** si las previsiones negativas se van cumpliendo, **potencialmente apetecibles para grupos externos con músculo financiero que puedan alterar la estructura urbana y gastronómica de la ciudad.** |
| Besteak beste, **eskatu du sektoreari zuzeneko laguntza ekonomikoa eta finantza arlokoa emateko, eta babesa emateko kontsumoaren sustapenari eta turismoari, suspertu daitezen. Horri lotuta, maila ertaineko eta altuko turismoaren aldeko apustua egin behar dela aipatu du, kultura, gastronomia eta kirola oinarri dituena.** | **Solicita**, entre otras cosas, **apoyo económico y financiero directo al sector, el apoyo al fomento del consumo y al turismo para su recuperación, enlazándolo con la apuesta por un turismo de gama media y alta, basado en la cultura, gastronomía y el deporte.** |
| Ekonomia eta enpresa gai multzoko azken hizlariak amaitu ondoren, Daniel Zulaikak eztabaida hasi du, 17:48an. Santiago Barbari eman dio hitza, Gizarte Kontseiluko kide den eta bere gogoetarekin mezu bat bidali duen herritarrari, helarazi duen gogoeta hori azal dezan. | Al finalizar el último ponente del bloque sobre economía y empresa y Daniel Zulaika abre el debate a las 17:48. Y emplaza a Santiago Barba, ciudadano miembro del Consejo Social que ha enviado un mensaje con su reflexión, a tomar la palabra para explicar dicha reflexión. |
| **Santiago Barbak** adierazi du **solidaritatea agertu behar dugula dolu fasean, eta "nahi dudan hiria garatzeko lan egin behar dela, hiria berreraiki ordez". Auzoek garrantzi handiagoa izango duten hiri bati** buruz hitz egin du, **"10 minutura" dagoen hiriari buruz. Era berean, tokiko merkataritzaren aldeko apustua egin dadila eskatu du,** eta azpimarratu du **hirian enplegua sustatu behar dela, jasangarritasun ekonomikoa, eta** | **Santiago Barba** señala que **tenemos que mostrar la solidaridad en la fase de duelo y trabajar para desarrollar "la ciudad que me gusta más que reconstruirla".** Habla de una **ciudad más de barrio, "a 10 minutos"**, de **apostar por el comercio local**, poniendo énfasis en **fomentar el empleo en la ciudad, la sostenibilidad económica, en repensar la movilidad. Y, resume, apostar por desarrollar la ciudad, sostenibilidad** |

| | |
|---|---|
| **mugikortasuna birpentsatu egin behar dela. Eta, laburtuz, adierazi du hiria garatzearen aldeko apustua egin behar dela, eta ingurumen jasangarritasunaren eta gizarte jasangarritasun handiaren aldekoa. Orain askoz ere handiagoa da gizarte bazterketaren arriskua.** | **ambiental y mucha sostenibilidad social. El riesgo de exclusión social es mucho mayor ahora.** |
| Hurrengo ekarpena **Belkis Johns**-ek egin du, etorkinen kolektiboen ordezkariak (**ASODEUS**). 17:51n hartu du hitza, eta adierazi du **etorkin ugarik lan egiten dutela, modu batera edo bestera, ostalaritzan. Era berean, esan du kezka eragiten diola haien etorkizunak, bai eta familia horien ongizateak ere.** Kolektibo horri emateko erantzun baten eske, galdera hauxe egin du: **Zer gertatuko da ostalaritza sektorean lan egiten duen etorkinen kolektibo honekin?** | La siguiente aportación viene de la mano de **Belkis Johns**, que representa a los colectivos de inmigrantes (**ASODEUS**). A las 17:51 toma la palabra para señalar el **importante número de inmigrantes que trabajan de una u otra manera en la hostelería y manifestar su preocupación por su futuro y el bienestar de esas familias**. Pidiendo una respuesta que poder llevar a dicho colectivo sobre la pregunta **¿Qué va a pasar con este colectivo inmigrante que trabaja en el sector hostelero?** |
| Aipatua izan delako, **Kino Martínezek** hartu du hitza berriro 17:53an, eta baieztatu du **ostalaritza sektorea dela etorkin gehien dituen sektorea. Era berean, esan du sektoreko langileen artean seguru asko etorkinen kolektiboak ondorioak nozituko dituela.** Aurreikusten du **integrazioa edo lanean sartzea pixkanakakoa izango dela, eta sektorea suspertu ahala gertatuko dela**. **Amaitzeko, balio eman dio ostalaritza sektoreak egiten duen integrazio lanari.** | En respuesta, por alusiones **Kino Martínez** retoma la palabra a las 17:53, confirmando que **el sector hostelero es el que más inmigrantes emplea y que dentro de los trabajadores del sector, probablemente el colectivo inmigrante se va a ver afectado**. Prevé que **la integración o incorporación al empleo será escalonada, según se recupere el sector. Finaliza poniendo en valor la labor de integración que realiza el sector hostelero**. |
| Hitzaldi horien ondoren, hurrengo gai multzoari dagozkion hitzaldien txanda hasi da. | Tras estas intervenciones se abre el turno de las presentaciones relativas al siguiente bloque. |
| **4. 2. gai multzoa: Kultura, kirola eta mugikortasuna** | **4. Bloque 2: Cultura, deporte y movilidad** |
| 17:55ean, **Oihana Zarrak** eman dio hasiera bigarren gai multzoari, **kultura, kirola eta mugikortasuna** arloak biltzen dituenari. | A las 17:55 horas, **Oihana Zarra** da inicio al segundo bloque dedicado a los ámbitos de **cultura, deporte y movilidad**. |
| **Tabakalerako gerenteak** aipamena egin dio, besteak beste, Behatokiaren maiatzeko inkestari. Inkesta horren arabera, Covid-19ren krisiaren aurreko testuinguruan, **kultura eta aisialdiko enpresek EAEko % 4a ordezkatzen dute, eta kultura arloko enpleguak EAEko % 2,9a ordezkatzen du.** Gainera, inkestak agerian utzi du kultura arloko partaidetza areagotzen ari dela. Baina Zarrak gehitu duenez, gaur egun krisiaren datuek zenbaki hauek utzi dituzte: **11.000 pertsona baino gehiagoren enpleguari** | La **gerente de Tabakalera** hace referencia, entre otras cosas, a la encuesta del Observatorio del mes de mayo que revela que en el contexto previo a la crisis del Covid-19 **las empresas culturales y creativas representan el 4% de la CAV y que el empleo cultural lo hace en un 2,9%.** La encuesta pone de manifiesto, además, que la participación cultural va incrementándose, pero Zarra añade que actualmente los datos de la crisis arrojan datos como que **más de 11.000 personas se han visto afectadas** por el |

| | |
|---|---|
| **eragin dio krisiak, eta kalkulatzen da galera ekonomikoek % 40a gaindituko dutela aurten.** Testuinguru honetan, azpimarratu du beharrezkoa dela **kultura sektoreko enpresei laguntza ematea, enpresak profesionaltzeko, horretarako dagokion aholkularitza eskainiz**. Horrez gain, Tabakalerak kulturaren ekonomian duen zeregina aipatu du. Adierazi du **ezinbestekoa dela Tabakalerak bere lana eta ahalegina egiten jarraitzea, tokiko eta lurraldeko sektorea garatuz, hiru lerrotan: sortzaileak, ekoizpena eta kultura zerbitzuak.** | impacto de la misma en **el empleo y que el peso estimado de las pérdidas económicas para este año supera el 40%.** En este contexto subraya la necesidad de **acompañar a las empresas del sector cultural en la profesionalización empresarial con el correspondiente asesoramiento** y habla sobre el papel de Tabakalera en la economía de la cultura. Señala que **es imprescindible que Tabakalera siga dedicando su trabajo y esfuerzo al desarrollo del sector local y del territorio en tres líneas: creadores, producción y servicios culturales.** |
| Bigarrenik, 18:00etan, **Andoni Iraolak** hartu du hitza **Errealaren izenean**. Berak esan duenez, krisiaren hasieratik **bi ideia izan zituzten argi: abonuen % 20a itzultzea zaleei, eta kosta ahala kosta ABEEE bat saihestea klubeko langileen artean.** Iraolak adierazi du bi helburu horiek bete egin dituztela, **jokalariekin soldata murrizteko lortu den akordioari esker.** | En segundo lugar, a las 18:00 horas, toma la palabra **Andoni Iraola por parte de la Real Sociedad** quien aclara que, desde el inicio de la crisis tuvieron **dos ideas claras: devolver el 20% de los abonos a los aficionados y evitar a toda costa un ERTE entre los trabajadores del club**. Iraola añade que ambos objetivos se han podido llevar a cabo **gracias al acuerdo de reducción salarial alcanzado con los jugadores**. |
| Andoni Iraolak **aldarrikatu du oinarrizko futbol elkarteek, eta, orokorrean, oinarrizko kirol elkarte guztiek eginkizun sozial bat betetzen dutela. Aurreikusten du oso gaizki pasatuko dutela eta laguntza beharko dutela.** Adierazi du **COVIDen eragin ekonomikoak 600 milioi euro gaindituko dituela datorren denboraldian**, eta **ziurgabetasuna** dela, gaur egun oraindik ere, protagonista nagusia. Azkenik, Errealaren laguntza eskaini die saio honetan dauden eragile guztiei, eta, gehitu duenez, **hiriari begira etengabeko gogoeta prozesuan daude, hiri hau berreraikitzen edo garatzen nola lagundu dezaketen pentsatzen.** | Andoni Iraola **reivindica la función social de los clubes de fútbol base y la de todos los clubes de deporte base en general y augura que lo van a pasar muy mal y que van a necesitar ayuda.** Señala que el **impacto económico del COVID va a superar los 600 millones de euros de cara a la próxima temporada** y que la **incertidumbre** sigue siendo la gran protagonista. Por último, tiende la mano de la Real Sociedad a todas y todos los agentes presentes en el encuentro y añade que, **de cara a la ciudad, se encuentran en una reflexión constante sobre cómo aportar en la reconstrucción o desarrollo de la misma.** |
| Amaitzeko, adibide gisa jarri du **hurrengo emakumeen Champions League-ko finala Donostian** izateko lorturiko akordioa, baina aitortu du ez dakiela zer eragin izango duen final hori egiteak. Hala ere, ondorioztatu du Donostia Europako futbolaren eta Europako futbol industriaren esparruan kokatzea ere ekarpen garrantzitsua dela. | Concluye poniendo como ejemplo el acuerdo alcanzado para la **próxima final de la Champions League femenina en Donostia / San Sebastián**, si bien reconoce no saber qué impacto va a tener la misma. No obstante, concluye que el hecho de poner a Donostia en el ámbito del fútbol europeo y de la industria europea del fútbol también es una aportación importante. |
| Kirolaren esparrutik atera gabe, Daniel Zulaikak **Fernando Díezi** eman dio hitza, **BERA BERA** | Dentro del ámbito del deporte también, Daniel Zulaika da paso a **Fernando Díez presidente** |

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN | GIZARTE KONTSEILUA CONSEJO SOCIAL

| | |
|---|---|
| **R.T. Kirol Elkarteko lehendakariari**, 18:08an. Hitzaldiaren hasieran, goraipatu egin du herritarrek prozesu honetan eman duten erantzuna, baina, era berean, **kezka agertu du, gaur egun hirian dauden 100 kirol elkarteetatik asko eta asko desagertu egin daitezkeelako, besteak beste, ekitaldi garrantzitsu ugari bertan behera geratu direlako.** | **del BERA BERA R.T. Club Deportivo** a las 18:08h, que comienza su exposición alabando la respuesta dada por la ciudadanía durante el proceso, pero **mostrando su preocupación por la posible desaparición de muchos de los 100 clubes actualmente existentes en la ciudad debido, entre otras cosas, a la suspensión de importantes eventos.** |
| Fernando Díezek adierazi du **orain arte inor ez dela jarri harremanetan elkarte horiekin, eta ez dela baloratu Covid-19k sektore honetan izan duen eragina.** Díezek hainbat ondorio aipatu ditu**, besteak beste, kobratu ez diren kirolarien kuotak, bertan behera geratu diren kirol ekitaldiak, erosi gabe geratu den kirol materiala, ABEEE prozesuan dauden kirol arloko langileak, edo lanik gabe daudenak, babesle falta kirol sektorean, kirol instalazioak itxita...** Adierazi du **Udalaren lidergo eta koordinazioaren falta sumatzen duela Covidek sorturiko egoeraren aurrean,** fase desberdinetan. Adierazi du **beharrezkoa dela une honetan bertan lanean hastea, uda amaitzean eskola kirola eta kirol federatua martxan jar daitezen, eta aldarrikatu du lantalde bat jarri behar dela abian, kirolaren esparruan etorkizuneko Donostiaren alde lan egin dezan.** | Fernando Díez asegura que **hasta la fecha nadie se ha puesto en contacto con los clubes y que no se ha valorado el impacto del Covid-19 en este sector**. **Cuotas de deportistas no cobradas, eventos deportivos suspendidos, material deportivo que se deja de comprar, personal deportivo en ERTE o sin trabajo, pérdida de patrocinadores en el sector deportivo, instalaciones deportivas cerradas...** Son algunas de las consecuencias que cita Díez que asegura **echar en falta liderazgo y coordinación por parte del Ayuntamiento ante la situación generada por el Covid** en sus diferentes fases. Asegura que **es necesario trabajar desde ya para poner en marcha el deporte escolar y federado tras el verano y reivindica la puesta en marcha de un grupo de trabajo que trabaje por la Donostia del futuro en materia de deporte.** |
| 18:13an, **Igor González DBUSeko zuzendari kudeatzaileak** hartu du hitza. Bera izango da bigarren gai multzoko azken hizlaria. Datuak eskaini ditu, **adieraziz pandemiak eragin gogorra izan duela hiriko mugikortasunean**, eta, adibide gisa, aipatu du Donostian **maximo historikoak izatetik** (**hirian 30 milioi bidaia batez beste,** hiriko autobusen erabilera hirukoiztuz) **% 92ko beherakada izatera igaro garela, pandemiaren unerik gogorrenean.** Hala ere, gehitu du **susperraldia hasita dagoela, eta oso baikor agertu da. Adierazi du hiriko mugikortasuna izango dela krisitik azkarren aterako den sektoreetako bat.** | A las 18:13h, **el director gerente de DBUS, Igor González** es el último ponente del segundo bloque. Ofrece datos sobre el **impacto** tan **severo** que ha supuesto **la pandemia en la movilidad urbana** y como ejemplo señala que en Donostia **hemos pasado de estar en máximos históricos con una media de 30 millones de viajes en la ciudad** (triplicando el uso del autobús urbano en la ciudad) **a registrar una caída del 92% en el momento más duro de la pandemia**. Añade, no obstante, que **la recuperación ha empezado y se muestra muy optimista llegando a afirmar que la movilidad urbana va a ser uno de los sectores que antes se va a recuperar de la crisis.** |
| Era berean, baikor ageri da etorkizunera begira ere, ziurgabetasun egoera bizi badugu ere. Adierazi duenez, **garraio publikoa funtsezko aktiboa izango da klima aldaketaren kontrako borrokan agertoki aldaketa** | De cara al futuro, a pesar de la situación de incertidumbre, también se muestra positivo. Señala que **el transporte público va a ser un activo clave a la hora de favorecer un cambio de escenario frente a la lucha contra** |

| | |
|---|---|
| **eragiteko garaian. Azpimarratu du funtsezko tresna izango dela administrazioentzat hirietako kolapsoa saihesteko eta hiri jasangarriagoak sortzeko, gertutasun handiagoa eta gizarte kohesio handiagoa duten hiriak.** Bere hitzaldiaren amaieran, aipatu du hiriko mugikortasuna, **gainera, ingurune segurua dela.** | **el cambio climático y subraya que va a ser una herramienta fundamental para las administraciones a la hora de evitar el colapso de las ciudades y para crear ciudades más sostenibles, más cercanas y con mayor cohesión social.** Concluye su exposición asegurando que la movilidad urbana **es además un entorno seguro**. |
| 18:22an, Daniel Zulaikak gai multzo honi buruzko **eztabaida tartea** ireki du, eta, bertan, **Arantxa Fernándezek hartu du hitza, Loiolako Erriberako Bizilagunen Elkarteko ordezkariak.** Adierazi du **bizilagunak kezkatuta daudela, auzoko zenbait autobus lerro kendu egin dituztelako, eta beste batzuen maiztasuna murriztu egin dutelako.** | En el **turno debate** sobre este bloque abierto por Daniel Zulaika a las 18:22h, interviene **Arantxa Fernández de la Asociación de Vecinos de Riberas de Loiola** para trasladar la **inquietud de los vecinos por la supresión de varias líneas de autobús del barrio y la disminución de la frecuencia de algunas otras**. |
| Haren galderari erantzunez, **Eneko Goia alkateak** adierazi du **Udalak ere nozitu duela COVID-19ren kalte ekonomikoa, eta zorpetzeko ezintasunari buruzko arau batzuk dituela jasota azken krisi ekonomikotik, oraindik aldatu ez diren arauak.** Adierazi du arazo nagusietako bat Donostiako Tranbia Konpainia dela, eta esan du normaltasuna berreskuratzeko lanetan ari direla. | Ante su pregunta, **el alcalde Eneko Goia** responde que **el Ayuntamiento también ha sufrido el impacto económico del COVID-19 y que tiene heredadas unas reglas de incapacidad de endeudamiento de la última crisis económica que todavía no se han modificado**. Uno de los grandes problemas, añade, es la Compañía del Tranvía de Donostia / San Sebastián y señala que están intentando recuperar la normalidad. |
| Era berean, azpimarratu du egia dela, **28. autobus lerroa izan dela** pandemia garaian erabateko **lehentasuna** izan duen lerroa, izan ere, uneoro **bermatu nahi izan da hiri sanitarioak emaniko zerbitzua.** | Subraya, asimismo, que efectivamente **la línea del autobús 28 ha sido una privilegiada** absoluta durante la pandemia porque en todo momento **se ha querido garantizar la atención de la ciudad sanitaria**. |
| Jarraian, hitz horiek berretsi ditu **Igor Gonzálezek** ere, eta erantsi du **itxialdian murrizketa goreneko araudia bete behar izan dutela; araudi horrekin, soilik ospitaleen gunera zerbitzua ematen zuten lerroek lan egin zezaketen. Iragarri du zerbitzuen % 85a jarriko dela martxan,** horien artean Loiolako Erriberako aipaturiko lerro horiek, ekainaren 22rako. | Unas palabras en las que, a continuación, se reafirma nuevamente **Igor González** quien añade que **durante el confinamiento han estado sujetos a una normativa de máxima restricción que únicamente les permitía dar servicio en aquellas líneas que ofrecían asistencia al ámbito hospitalario y anuncia la puesta en marcha del 85% de los servicios**, entre ellas la de las citadas líneas de Riberas de Loiola, para el 22 de junio. |
| **5. 3. gai multzoa: Gizarte eta osasun arloa** | **5. Bloque 3: Socio-sanitario** |
| 18:30ean, Daniel Zulaika Gizarte Kontseiluko lehendakariak hirugarren gai multzoari eman dio | A las 18:30 horas el presidente del Consejo Social, Daniel Zulaika, da paso al tercer bloque temático dedicado al ámbito socio-sanitario. |

| | |
|---|---|
| hasiera, gizarte eta osasun arloa garatzen duenari. | |
| Lehenik **Pilar Lekuonak** hartu du hitza, **Gizarte Kontseiluko lehendakariorde eta COEGI Gipuzkoako Erizaintza Elkargoko lehendakariak.** Bertaratutako pertsonek COVID-19ren kontrako borrokan eginiko lana eskertu du lehenik, eta, horien artean, bereziki aipatu du Eneko Goia alkatea, besteak beste, Udala eta Kursaala argitu dituelako Gipuzkoako erizainei eginiko omenaldian. Ondoren, Lekuonak osasun arloko profesional guztiak aipatu ditu, eta adierazi du horien lana ezinezkoa izango zela herritarrek eginiko ahaleginik gabe. Lekuonak **azpimarratu du, hain zuzen ere, bizi izan dugun ziurgabetasun goreneko egoera honetan funtsezkoa izan dela eragile guztien arteko koordinazioa, kohesioa eta lotura.** Azpimarratu du erizainek **izugarrizko tentsio emozionala** bizi izan dutela. Azpimarratu du **osasun arloko krisia eta krisi ekonomikoa lotuta daudela, eta, beraz, osasunean inbertitzea beste arlo guztietan inbertitzea dela.** | La primera en intervenir es **Pilar Lekuona, vicepresidenta del Consejo Social y presidenta del Colegio de Enfermería de Gipuzkoa (COEGI)**. Tras agradecer la implicación de las personas presentes en la lucha contra el COVID-19, entre los que cita expresamente al alcalde Eneko Goia por, entre otras cosas, haber iluminado el Ayuntamiento y el Kursaal en homenaje a las enfermeras de Gipuzkoa, Lekuona hace alusión a todos los profesionales sanitarios y manifiesta que ellos y ellas no hubieran podido realizar su labor sin el esfuerzo llevado a cabo por la ciudadanía. Lekuona **hace hincapié, precisamente, en que en esta situación de incertidumbre exagerada que hemos vivido, ha sido fundamental la coordinación, la cohesión y la conexión entre todos los agentes**. Subraya la **enorme tensión emocional** a la que han estado sometidas las enfermeras y enfermeros e insiste en que **la crisis en el ámbito sanitario y la económica van de la mano y que, por lo tanto, invertir en salud es invertir en todo lo demás.** |
| **Ikasi dugunari dagokionez**, **prebentzioa** aipatu du, eta bereziki aipatu ditu **kolektiborik zaurgarrienak, egoera honek gehien kaltetu dituenak horiek izan baitira.** “Zenbat eta pobrezia handiagoa, orduan eta zaurgarritasun handiagoa eta arazo psikoemozional gehiago”, erantsi du. Amaitzeko, **deia egin dio** “dagokionari”, **gaiari buruzko komunikazioa argia izan dadin**. Izan ere, bere iritziz komunikazio hori dezente lausotzen ari da une hauetan, eta horrek kezka eragiten dio. | Como **aprendizaje** hace alusión a **la prevención** y menciona especialmente a **los colectivos más vulnerables como grandes perjudicados de esta situación**. “A más pobreza, más vulnerabilidad y más problema psicoemocional”, añade. Para finalizar, realiza **un llamamiento** “a quien corresponda” **para que se lleve a cabo una comunicación clara,** ya que en estos momentos opina que se está dispersando bastante y ha mostrado su preocupación por ello. |
| Jarraian, 18:38an, **Itziar Pérez Donostialdeko ESIko gerenteak** hartu du hitza. 2020ko urtarriletik gaur egunera arte gertatu denaren laburpena egin du, eta datozen hilabeteetan bere ustez gertatuko denaren aurreikuspen bat gehitu du. Adierazi duenez, **estatu mailako gaixotasun berrien erreferentziazko zentroa denez, Donostialdeko ESIn urtarrilean hasi ziren Covid gaixotasuna tratatzeko protokoloa lantzen eta ospitaleak zuen kontingentzia plana eguneratzen.** Balioa eman dio Donostialdeko ESIko 7000 langileek prozesu honetan guztian egin duten diziplina anitzeko lanari, osasun erronka honi erantzuna | A continuación, a las 18:38h, toma la palabra **Itziar Pérez, gerente de la OSI-Donostialdea** quien realiza un breve relato de lo ocurrido desde enero de 2020 hasta la actualidad y añade la previsión de lo que opina van a ser los próximos meses. Señala que, **como centro referente en enfermedades emergentes a nivel estatal, en la OSI-Donostialdea comenzaron a trabajar en enero en el protocolo del tratamiento del Covid y en la actualización del plan de contingencia que tenía el hospital.** Pone en valor el trabajo mutilidisciplinar de los 7000 trabajadores de OSI-Donostialdea llevado a cabo durante todo el |

| | |
|---|---|
| emateko; **izan ere, azken mendean izan den osasun erronkarik zailenetakoa izan da, eragin handiena izan duenetakoa. Era beran, azpimarratu du ospitale eta lehen arretako zentro guztiekin, publikoekin nahiz pribatuekin, sarean eginiko lana.** Pérezek **arlo emozionalean eginiko lan gogorra ere aipatu du**, eta, bestalde, nabarmendu du **ez lehen mailako arreta ez ospitaleko larrialdiak ez direla egon gainezka inongo momentutan.** Ia 600 paziente izan dituzte plantan, eta 62 kritikoen artean, zainketa intentsiboetan.<br><br>**Herritarrei deia egin die, pazienteei laguntzerakoan betetzen jarraitu beharko diren neurriak errespeta ditzaten, eta adierazi du udazkena zaila izango dela, gripeak eta seguru asko Covid-ek eraginda.** Gehitu du gaur egun **"Covid Zero Prebentzio Planean" lanean ari direla, eta jarraipenean, baina egoera, oraindik ere, ziurgabetasunekoa dela.** Azkenik, **prebentziorako deia egin du, neurri bakarra baita**, eta eskatu du ardura pertsonala izan behar dela prebentzio hori betetzeko: musukoa, distantzia soziala eta eskuak garbitzea.<br><br>**Eva Salaberria Donostia Lagunkoiako arduradunak,** bere aldetik**, talde eragileak eginiko gogoeta kolektiboaren laburpena agertu du.** Gogoeta horren barnean sartu da **krisi honen eragin emozionala modu kolektiboan kudeatzeko beharra, egoera "patologizatzeko" arriskuan eror ez gaitezen. Mahai gainean jarri dituen gaien artean, besteak beste, hauek daude: okerren pasatzen ari diren pertsonei arreta handiarekin entzutea, arlo komunitarioan sortu diren harremanak egokitzea eta harreman horiei eustea, etxebizitza, egoera honek familiei eta gazteei eragingo dien moduaren inguruko kezka, eta geruza digitala duten ekimenak sustatzeko beharra.**<br><br>Amaitzeko, Eva Salaberriak bi ondorio azpimarratu ditu: **lankidetza da aurretik agertu den guztiari aurre egiteko modua;** eta beharrezkoa da **alde batera uztea jarrera paternalistak, eta pentsatzea** Donostian bizi diren **adineko pertsona guztiak beharrezkoak direla ondasun komuna eraikitzeko.** | proceso para dar respuesta a **uno de los retos sanitarios más complicados y de mayor impacto del último siglo** y **subraya**, asimismo, **la labor en red con todos los hospitales y centros de atención primaria, públicos y privados**. Pérez se refiere también al **duro trabajo desarrollado en el ámbito emocional** y, por otro lado, añade que **ni la atención primaria ni las urgencias del hospital han estado saturadas en ningún momento.** Han tenido casi 600 pacientes en planta y 62 en críticos, en intensivos.<br><br>Realiza un **llamamiento a la ciudadanía para que respete las medidas que se van a seguir llevando a cabo durante el acompañamiento a pacientes y asegura que el otoño va a ser complicado ante la gripe y posiblemente el Covid.** Añade que en la actualidad **están trabajando en el "Plan de Prevención Covid Zero" y en el rastreo, pero que la situación sigue siendo de incertidumbre.** Por último, apela a la **prevención como única medida** y realiza un llamamiento a la responsabilidad individual para llevar a cabo la misma: mascarilla, distancia social y lavado de manos.<br><br>**Eva Salaberria, responsable de Donostia Lagunkoia**, por su parte, realiza una **síntesis de la reflexión colectiva llevada a cabo por el grupo motor** en la que se incluye la **necesidad de gestionar la incidencia emocional de esta crisis de manera colectiva para no caer en la "patologización"**. La **escucha profunda de las personas que peor lo están pasando**, la **adaptación y el mantenimiento de los vínculos que han surgido en lo comunitario**, la **vivienda**, **la preocupación sobre cómo va a afectar esta situación a las familias y a la gente joven y la necesidad de impulsar iniciativas que dispongan de una capa digital, entre otras, son alguna de las cuestiones que pone sobre la mesa.**<br><br>Para finalizar, Eva Salaberria destaca dos conclusiones: **la colaboración es la forma de abordar todo lo expuesto anteriormente** y es necesario **dejar a un lado las actitudes paternalistas** y pensar que **todas las personas mayores** que viven en Donostia / San Sebastián **son necesarias para la construcción de un bien común.** |

| | |
|---|---|
| Jarraian, Daniel Zulaikak **Elena Lukini** eman dio hitza 18:50ean. **Gipuzkoako Gurutze Gorriko esku-hartze sozialeko zuzendariak** "Gurutze Gorriak erantzuten du" kanpaina aurkeztu du, estatu mailakoa. Kanpaina horrek erantzuna ematen die koronabirusaren eraginaren ondorioz egoera zaurgarrienean dauden pertsonei, haien osasun arloko eta ongizate sozialaren arloko beharrak betez. Adierazi du **Gipuzkoan gizarte bazterketa egoeran dauden 39.999 pertsonari eman diotela arreta, eta Donostian, Eusko Jaurlaritzarekin batera, "Guztion artean" izeneko akordioa sinatu dutela.** | A continuación, Daniel Zulaika da paso a **Elena Lukin** a las 18:50h**. La directora de intervención social de Cruz Roja Gipuzkoa** presenta la campaña "Cruz Roja responde" a nivel estatal, para dar respuesta a las necesidades de salud y de bienestar social a las personas más vulnerables tras el impacto del coronavirus. Señala que **en Gipuzkoa han atendido a 39.999 personas en exclusión social y que en Donostia, junto al Gobierno Vasco, firman el acuerdo llamado "Guztion artean".** |
| Aurrera eraman dituzten eginkizunen artean, aipatu ditu, baita ere, haurrei emaniko online laguntza, jostailuak erostea eta eskulanak entregatzea, eta **deia egin du, gizarteak duen "input solidarioa" balia dadila eta lankidetzan jardun dadila, hirian gizarte laguntzaren arloan egiten diren esku-hartzeetan.** Besteak beste, **eskatu du espazioak sor daitezela etxerik gabeko pertsonentzat, lan partekatua egin dadila, gutxieneko diru sarrera sor dadila, adineko pertsonei laguntzeko sare soziala indartu dadila eta enpatia eduki dezagula lanean jarraitzeko garaian.** | Entre las funciones llevadas cabo subraya también el acompañamiento online a niños y niñas, la compra de juguetes y la entrega de manualidades y **llama a aprovechar el "input solidario" de la sociedad para colaborar en las intervenciones de ayuda social en la ciudad**. **Solicita**, entre otras cosas, **la creación de espacios para personas sin hogar, el trabajo conjunto, la creación del ingreso mínimo vital, el refuerzo de la red social de apoyo a las personas mayores y la actitud empática a la hora de seguir trabajando.** |
| **Hirukideko ordezkari Arrate Echezarretak,** bere aldetik, **seme-alabak dituzten familietan pandemiak izaniko eragina** aztertu du 19:05ean. **1.440 familia baino gehiagori eginiko inkesta** aurkeztu du. **Familiek batez beste 3,15 haur dituzte, eta klase ertainekoak eta langileak dira.** Inkesta horretatik datu hauek atera dira, besteak beste: **familien erdiak ondorio negatiboak edo oso negatiboak nozitu ditu arlo ekonomikoan; familien % 41ek zailtasun handiagoak izan dituzte lan bizitza eta bizitza pertsonala bateratzeko azken asteotan; eta kezka dago udaleku publikoak kenduko direlako.** Era beran, inkesta egin zaien familiak gehien kezkatzen dituzten gaien artean, hauek nabarmendu daitezke: **gaixotasunari beldurra, itxialdiak sorturiko estutasuna, ondorio ekonomikoak, adineko pertsonekin egoteko aukerarik eza, haurrekin kalera ezin atera izana eta seme-alabekin telelanean aritzea.** | **Arrate Echezarreta de Hirukide,** por su parte, analiza a las 19:05h la **incidencia de la pandemia en las familias con hijos e hijas**. Presenta la **encuesta realizada a más de 1.440 familias con una media de 3,15 hijos de clase media trabajadora**, de la cual se extraen datos como los siguientes: **la mitad de las familias se ha visto afectada de manera negativa o muy negativa económicamente, el 41% de las familias ha tenido mayores dificultades para conciliar la vida laboral y personal durante las últimas semanas y existe preocupación ante la supresión de las colonias públicas.** Destaca, asimismo que el **miedo a la enfermedad, la angustia al confinamiento, las consecuencias económicas, el no poder estar con las personas mayores, el no poder salir con los niños y niñas a la calle y el teletrabajar con los hijos e hijas** como las cuestiones que más preocupan a las familias encuestadas. |

| | |
|---|---|
| **Datu baikor** gisa, gehitu du **familien % 62k egoera hau baliatu dutela familiarekin denbora gehiago pasatzeko, eta ondorioztatu du familia dela herritarren babes soziala bizi izan duguna bezalako krisi uneetan. Horregatik, familia babesteko deia egin du**.<br><br>Amaitzeko, 19:09an **Amaia Lasheras Berdintasun Kontseiluko eta Arrats Elkarteko ordezkariak hartu du hitza. Eskerrak eman ditu, hiriko Udalak berehala ireki zituelako behin-behineko aterpetxeak.** Krisiak agerian jarri duen arazo bat aipatu du; izan ere, honelako egoera baten aurrean, **baliabiderik gabe geratzen dira lurpeko ekonomiari esker bizi diren pertsonak** (eta adibide gisa prostituzioa jarri du). Hala ere, **azpimarratu du Covid gaixotasun hau aukera gisa ere ikus daitekeela, gauzak beste modu batera egiteko.**<br><br>Testuinguru honetan, **adibide gisa jarri du itxialdian egon diren "etxerik gabeko" pertsonek izan duten hobekuntza, ezin izan direlako kalean egon itxialdian. Gainera, esan du arlo sozialean ondo lan egiten bada, elkarlanean, jendearen egoera hobetu daitekeela.**<br><br>19:15ean, Daniel Zulaikak hasiera eman dio hirugarren gai multzoari buruzko **eztabaidari**, eta **Kepa Kortari** eman dio hitza, jardunaren laburpen bat egin dezan. **"Geure artean koordinatzea, kohesionatzea, elkarrekiko harremana, lankidetza, erakundeen arteko koordinazioaren garrantzia, prebentzioaren garrantzia.**<br><br>**Hau ez da amaitu, eta oinarrizko mezu bat, mezu baikorra: guztion artean egin ahal izan dugun hau beste aukera bat da, gauzak beste modu batera egiteko aukera bat,** beste mundu bat posible da. Begira diezaiogun etorkizunari baikortasunez, eta alda gaitezen. **Eredu aldaketa batean sakondu behar dugu, ikasi dugunetik abiatuta"**, Donostiako Estrategia Bulegoko zuzendariak aldarrikatu duenez. | Como **dato positivo** añade que a un **62% de las familias le ha servido esta situación para pasar más tiempo en familia y concluye situando a la familia como refugio social de la ciudadanía en momentos de crisis como este y realiza un llamamiento para apoyarla.**<br><br>Para finalizar, a las 19:09h, toma la palabra **Amaia Lasheras del Consejo de Igualdad y de la Asociación Arrats Elkartea** que **agradece la premura con la que el Ayuntamiento de la ciudad abrió los albergues provisionales.** Señala que la crisis pone de manifiesto la problemática existente ante la **ausencia de recursos por parte de las personas que viven de la economía sumergida** (y pone como ejemplo la prostitución) ante situaciones como esta, pero **insiste en que el Covid puede verse como oportunidad para hacer las cosas de otra manera**.<br><br>En este contexto, pone de **ejemplo la mejoría de las personas "sin techo" que han sido confinadas por no poder estar en la calle durante el confinamiento y añade que si se trabaja bien en lo social y de manera conjunta, la gente puede mejorar.**<br><br>A las 19:15 Daniel Zulaika abre el **debate** sobre el tercer bloque y emplaza a **Kepa Korta** a realizar una síntesis del acto. **"Coordinarnos, cohesionarnos, conectarnos, cooperar, la importancia de la coordinación entre las instituciones, la importancia de la prevención.**<br><br>**Esto no ha terminado y un mensaje básico y de optimismo: esto que hemos podido hacer entre todos, es otra oportunidad para hacer las cosas de otra manera**, otro mundo es posible. Miremos el futuro con optimismo y cambiemos. **Profundizar en un cambio de modelo a partir de esta enseñanza**", sentencia el director de la Oficina de Estrategia de Donostia / San Sebastián. |

| 6. Azken Eztabaida | 6. Debate Final |
|---|---|
| Bloke bakoitzaren amaieran eztabaida egon denez, ez da egiten. | Como ha habido debate al final de cada bloque, no se lleva a cabo. |
| **7. Saioaren amaiera** | **7. Cierre de la sesión** |
| 19:20an, Gizarte Kontseiluko lehendakariak, Daniel Zulaikak, eskerrak eman dizkie hizlari guztiei, beraien partaidetzagatik, eta amaiera eman dio bilerari. | A las 19:20h, el Presidente de Consejo Social, Daniel Zulaika, agradece a todos y todas las ponentes sus exposiciones y da por concluida la reunión. |

Donostia / San Sebastián, 2020/06/17